

## Kapituluairen gida didaktikoa

### Koloretako irudia

Hemeretzigarren mendean, koloretako argazkiak lortzeko modu bakarra kopiak koloreztatzea zen. Beraz, erraz antzeman daitekeen bezala, prozesuak argazkilari baten eta margolari baten parte hartzea eskatzen zuen.

Gaur egun, koloretako argazkiek ez daukate inolako ezkutukorik, eta egiteko ez dute eskatzen formula miragarririk. Horixe da, hain zuzen ere, kapitulu honen xedea; hau da, koloretako argazkilaritzaren giltzarriak argitasunez eta adibide argigarri ugariz erakustea.

Bukatzeko, LANTEGIA deitzen dugun atalean, antzinako argazkilarien jarduna gogoratuko dugu, zuri-beltzeko kopiak koloreztatuz.

#### **KOLORETAKO IRUDIA**

02:43 - Koloretako lehen argazkiak. (SARRERA)

05:01 - Koloretako irudiak

05:21 - Terminologia.

08:51 - Eguraldia argazkietan

10:14 - Kolore kontrastatuak

12:03 - Kolore harmonikoak

13:33 - Kolore motelak

15:05 - Koloreen erabilera

17:16 LANTEGIA: Kopiak eskuz koloreztatzeko

#### **LANTEGIA: Kopiak eskuz koloreztatzeko**

Ariketa egiten hasi aurretik, irakasleak bi argazki aukeratuko ditu, eta prest izango lanean hasteko. Horrela eginez gero, ikasleek, erabiliko dituzten koloreen arabera, gogoko duten kopia egin ahal izango dute.

Ondoren, LANTEGIA atala ikusiko dugu. Jarraian, ikasleek koloreztatzea erabaki duten kopia hartu eta lanean jarriko ditugu.

Ariketa bukatutakoan ikasleei erabili dituzten koloreei buruzko azalpenak eman ditzatela eskatuko diegu

Erabiliko dugun materiala:

Zuri-beltzeko argazki bi.

Aukeratu argazkiaren kopiak.

Koloretako arkatzak eta errotuladoreak.

#### ***ARGAZKILARITZAREN HISTORIA***

Bideo bakoitzaren sarreran, argazkilaritzan izan diren gertakari eta aurkikuntza aipagarrienak adierazten dira. Atal honetan aipatzen diren datuen bidez, argazkilaritzaren historia laburra kontatu nahi da.

Historia osatzeko, gida didaktikoetan ematen diren datuak koaderno batera aldatzea komeni da; horrela, seriearen ikustaldia bukatzean, gertakarien koadroa erabat osatua izango dugu.

Koloretako lehen argazkiak

1869an, Charles Cros-ek eta Luis Ducos de Haurun-ek koloretako lehen argazkia egin zuten.

1936an, Kodak-ek lehen diapositiba pelikula aurkeztu zuen.

1941n, Kodak-ek eta Agfa-k pelikula sentikorragoak, bikor txikiagokoak eta errebelatzeko errazagoak aurkeztu zituzten.

**Zirkulu kromatikoa.** Eguzkiaren espektroa osatzen duten kolore guztiak hartzen dituen zirkulu erako konposizioa.

**Kolore motelak.** Zuria edo beltza nahasirik daukatenak. Zuria daukatenak tonu altukoak dira; beltza daukatenak, berriz, tonu baxukoak.

**Kolore harmonikoak.** Harmonia iradokitzen dutenak.

**Kolore beroak.** Beroarekin erlazionatzen ditugunak: gorria, horia eta magenta.

**Kolore osagarriak.** Magenta, horia eta ziana.

**Kolore hotzak.** Hotzarekin erlazionatzen direnak: urdina, ziana eta berdea.

**Kolore primarioak.** Gorria, berdea eta urdina.

**Kolore aseak .** Kolore garbiak.

## LIBURUAK

**La fotografía paso a paso.** Michel Langford.  
H. Blume Ediciones. -Madril- 1995

*Hauxe duzu eskuetan erabiltzeko libururik osoena eta ulerterrazena.*

**Macrofotografía.** W. Kruyt.

**Retrato creativo.** P. Zeemeijer.

**Técnica fotográfica.** W. Broekmyn.

Parramón institutua. -Bartzelona- 1990.

*Hiru liburu hauek, batez ere, praktikoak dira. Eurretan adibide ugari aurkituko dituzu gai bakoitza jorratzeko.*

## Seriea osatzen duten bideoak

- 1.- Argazkilaritzaren oinarriak
- 2.- Argazki kamera
- 3.- Pelikula
- 4.- Esposizioaren kalkulua
- 5.- Irudiaren osagarriak
- 6.- Irudiaren egitura
- 7.- Konposaketaren artea
- 8.- Koloretako irudia
- 9.- Tresneria
- 10.-Argiztapen artifiziala
- 11.-Kamera sortzailea
- 12.-Argazkilaritza digitala

### ekoizlea:

**iadi**

### Banatzailea:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3  
11. bulegoa  
01008-Gasteiz  
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILAK  
ONETSI

2003-01-15